



IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

EDUKIA

1	SARRERA	1
2	AUSARI BURUZKO INFORMAZIO ORGANIKOA	1
3	HELBURUA ETA APLIKAZIO-ESPARRUA	3
4	HITZEN GLOSARIOA	5
5	KODE ETIKOA.....	6
6	IRUZURRAREN AURKA JARDUTEKO NEURRIAK	7
	6.1 Prebentzioa	7
	6.2 Detekzioa	10
	6.3 Zuzenketa eta jazarpena	19
7	KONTROLEN EBALUAZIOA.....	21
8	FINANTZAKETA BIKOITZA.....	22
9	AZPIPROIEKTUEN EDO EKINTZA-ILDOEN JARRAIPENA	23
10	JAKINARAZPENA ETA SALAKETA. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA	24
11	EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA.....	24
12	IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA INDARREAN SARTZEA ETA INDARREAN EGOTEA.....	24

1. SARRERA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean, “SEEP” ere bai) Europar Batasunean sustatzen den tresna gisa eratzten da, COVID-19 pandemiaren eraginak arintzera eta gizartea eraldatzera bideratua. Helburu hauek ditu: ekoizpen-sarea modernizatzea, «deskarbonizazioa» eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzea, digitalizazioa sustatzea, eta ikerketara eta prestakuntzara bideratutako egiturak eta baliabideak hobetzea, gizarteak gaitasun handiagoa izan dezan, azken batean, Pandemia bezalako arazoak gainditzeko; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan —Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena— ezarritako esparruaren arabera.

Testuinguru horretan, Espainiako Gobernuak Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu zuen, SEEP planaren kudeaketa-sistema eratzten zuena (aurrerantzean, “HFP AGINDUA”). Agindu horretan ezartzen dira plana egikaritzeko Batasunaren araudian ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko jarraibideak. Eskakizun horietako bat iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea da.

Horregatik guztiagatik, estatu kideetako administrazioek —Europar Batasunetik datozen funtsen onuradunak edo mailegu-hartzaileak diren aldetik— Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egoki guztiak hartu beharko dituzte, eta, ondorioz, funtsen erabilera Batasuneko eta nazioko zuzenbide aplikagarriara egokitzen dela zaindu beharko dute —bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez—; era berean, kontrol-sistema eraginkor eta efiziente bat ezartzea eskatuko da, oker ordaindutako edo oker erabilitako zenbatekoak berreskuratu ahal izateko.

AGUAS DEL AÑARBE - AÑARBEKO URAK SAK (aurrerantzean, biak batera, “AUSA”), SEEPen esparruan, iruzurraren aurkako neurrien plana (aurrerantzean, “Iruzurraren aurkako Neurrien Plana”) jasotzen dute dokumentu honetan, Batasunean, estatuan eta eskualdean, hurrenez hurren, iruzurraren aurka ezarritako eskakizunak betetzeko.

Azpimarratzekoa da bai SEEPen diseinuan, bai dokumentu hau egiteko, AUSAk, aplikatu beharreko araudi nazionalaz eta Europar Batasunekoaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko araudia eta jarraibideak hartu dituela kontuan.

1 AUSARI BURUZKO INFORMAZIO ORGANIKOA

Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SA Añarbeko Uren Mankomunitateko kudeaketa-sozietate publikoa da, eta edateko uraren hornidura-zerbitzuak emateaz eta hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak emateaz arduratzen da.

Mankomunitateko Batzarrak gobernatzen du Mankomunitatea bera. Mankomunitateko hamar udalek izendatutako 17 kidek osatzen dute Batzarra, udal bakoitzaren biztanleen proportzioan. Añarbeko Uren Mankomunitatea da Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SA izeneko bere kudeaketa-sozietatearen akziodun bakarra. Sozietatearen gobernu-organoak dira Batzar Orokorra

(Mankomunitateko Batzarreko kide berberak osatua) eta Administrazio Kontseilua (gaur egun sozietatearen Batzar Orokorrek izendatutako bederatzi kontseilarik osatua).

Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SA 1995eko irailaren 15ean eraturako sozietate anonimoa da. Sozietatearen egoitza Donostian (Gipuzkoa) dago, Errotaburu kalea 1., 2. eta 6. solairuetan, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago 1.823 liburukian, 61 folioan, SS-10571 orrian, A-20538039 IFZ zenbakiarekin.

Administrazio-organoa bederatzi kideko administrazio-kontseilu batek osatzen du.

Halaber, Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAK gaur egun zuzendari kudeatzaile bat du, José Ángel Ercilla jauna.

BETEAN AUDITORIA SLP da Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak SAren urteko kontuen auditorea.

Europako funts hauen kudeaketan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko SEEPek behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Mekanismoa garatzeko Europako Batzordearen jarraibideei jarraituz, AUSAk Betetze Batzorde bati esleitu dizkio kontrol-erantzukizunak; batzorde horrek eginkizun hauek izango ditu:

1. **Iruzuraren aurkako neurrien plana** koordinatzea, SEEPen esparruan.
2. AUSAko langileen **komunikazioa eta kultura etikoa** sustatzea.
3. AUSAko langileak **aholkatzea eta sentsibilizatzea** Kode Etikoaren aplikazioaren inguruan, barneko kultura etikoa hobetzen lagunduz.
4. **Iruzuraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken** aurkako borrokari buruzko **politikak** eta horiek aplikatzeko **prozedurak** proposatzea, onar daitezen.
5. Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honetan jasotako **kontrol- eta zaintza-neurrien aplikazioa sustatzea eta koordinatzea**, bereziki Informazioko Barne Sistemari (Salaketan Kanala) dagozkionak.
6. Iruzuraren aurkako Neurrien Planaren oinarri diren **informazio-tresnak eta -sistemak** mantentzea, bereziki Informazioko Barne Sistemari (Salaketan Kanala) dagozkionak.
7. **Ekintza-planak** gainbegiratzea eta jarraitzea.
8. **Kontrolak** betetzen direla egiaztatzea eta horren jarraipena egitea.
9. **Iruzur korporatiboaren urteko txostena** egitea, **hala dagokionean**.

Betetze Batzordea osatzen duten pertsonen kasuan, bermatu egin behar da erabakiak hartzerakoan beren independentzia, baita kudeaketa- eta kontrol-funtzioak bereiztea ere.

Betetze Batzordeak ohiko bilkurak egingo ditu, sei hilean behin gutxienez, oro har, eta behar beste aldiz edo edozein kidek eskatuta egin ahal izango ditu ezohiko bilkurak.

Deialdia Betetze Batzordeko idazkaritzaren ardura duen pertsonak bidaliko du, bilkura non egingo den eta gai-zerrenda adieraziz. Halaber, berak egingo du bilkura bakoitzaren akta, eta Batzordearen beraren bileretan azertu, onartu eta/edo erregistratzen diren agirien erregistro segurua egingo du, formatu fisiko edo digitalean. Erabakiak kideen gehiengo soilez hartuko dira.

Era berean, aldizka, AUSAk ziurtatu beharko du iruzurraren aurkako neurrien kontrol-esparruaren auditoriak eta/edo berrikuspenak egiten direla, Betetze Batzordearen funtzionamendu koherentea eta eraginkorra egiaztatzeko.

2 HELBURUA ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honen helburua da iruzurraren esposizioa murriztea, barnean zein kanpoan, SEEPen esparruan garatutako azpiproiektuei eta jarduketei lotuta.

Iruzurraren aurkako Neurrien Planak berariaz jorratzen ditu iruzurraren aurkako arrisku nagusiak, iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko elementuak kontuan hartuta: **prebentzioa, detekzioa, zuzentasuna eta jazarpena**; eta alderdi interesdun guztiek beren erantzukizunak eta betebeharrak behar bezala ulertzen dituztela ziurtatuko du, eta, gainera, dagokion erakundearen barruan zein kanpoan, iruzurrari aurre egiteko planteamendu koordinatua hartu duten onuradun potentzial guztiei mezua helarazten zaiela ziurtatuko du.

Iruzur-arriskuaren ebaluazioa, prebentzio- eta detekzio-neurri egokiak eta une egokian koordinatutako ikerketa konbinatzeak nabarmen murriztuko du iruzur-arriskua, eta, gainera, disuasio-metodo garrantzitsua izango da.

HFP AGINDUAREN 6.5 artikuluko zehaztapenen arabera, Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honek gutxienezko eskakizun hauek ditu:

- a) AUSAk onartzea SEEPen betearazpenean parte hartu beharra jakiten denetik.
- b) Iruzurraren aurkako neurriak tamainan eta «iruzurraren aurkako zikloa» delakoaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratzea: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.
- c) Iruzur-arriskuaren, eraginaren eta iruzur-probabilitatearen ebaluazio bat egin dadin aurreikustea SEEP gauzatzeko funtsezko prozesuetan eta horien aldizkako, bi urteko edo urteko berrikuspenean –iruzur-arriskuaren arabera–, eta, nolana ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo prozeduretan edo langileen artean aldaketa esanguratsuak izan direnean.
- d) Prebentzio-neurri egokiak eta neurrikoak definitzea, egoera zehaztutara egokituak, iruzurraren hondar-arriskua maila onargarri batera murrizteko.
- e) Alerta-seinaleekin bat datozen detekzio-neurriak aurreikustea eta neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztea.
- f) Iruzur-kasu susmagarri bat atzematen denean hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehaztea, iruzur-susmoak jakinarazteko mekanismo argiekin.
- g) Iruzur-kasu susmagarrien jarraipena egiteko eta iruzurrez gastatutako EBko Funtzak

berreskuratzeko prozesu egokiak ezartzea.

- h) Iruzur-arriskuaren ebaluazioa berrikustera transmititzen diren iruzur efektiboarekin edo potentzialarekin lotutako prozesuak, prozedurak eta kontrolak berrikusteko jarraipen-prozedurak definitzea.
- i) Berariaz, interes-gatazken egoerak prebenitzeari eta zuzentzeari buruzko prozedurak definitzea, EBko Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera. Zehazki, nahitaezkoa izango da Interes Gatazkaren Absentzia Deklarazio bat sinatzea SEEPen betearazpen-prozeduretan parte hartzen dutenek, hierarkian gorago dagoenari jakinaraztea balizko interes-gatazkarik badago, eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzea.

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau honako hauen mende dago: 2017/1371 (EB) Zuzentaraua — Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa—, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamendua (EB, Euratom) —Batasunaren aurrekontu orokorrari (aurrerantzean, EBren Finantza Erregelamendua) aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa—, eta uztailaren 9ko 11/2021 Legea —iruzur fiskala saihesteko eta haren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa—.

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honen irismenak AUSAko kide guztiak hartzen ditu barne, kontratu-modalitatea, harekin lotzen duen posizio hierarkikoa edo funtzionala edozein dela ere; bereziki, Batzordeko kideak, Administrazio Kontseiluko kideak, Zuzendaritzakoak eta Saitetako arduradunak (hemendik aurrera, horietako batez hitz egitean **“Profesionala”** deituko zaio, eta modu bateratuan, **“Profesionalak”**). Era berean, onuradun edo hirugarren gisa AUSArekin harremanak dituzten sozietate kontratistei eta azpikontratistei ere aplika dakieke.

Iruzurraren aurkako Neurrien Plana profesional guztientzat, agintarientzat eta enplegatu publikoentzat —edozein dela ere horien izaera— egongo da eskuragarri, eta bete beharreko espedienteetan onuradun gisa edo beste baldintza batzuetan esku-hartzeren bat duten hirugarren guztiei jakinaraziko zaie; horiek guztiek plana bete egingo dutela hitzeman beharko dute.

Horrez gain, Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren edukia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonen ere aplikatzen zaie:

- a) *Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*
- b) *Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.*
- c) *Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena*

izatea.

- d) *Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.*
- e) *Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.*

Inguruabar horiek, hala badagokio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoan, jasotako aurreikuspenekin bat etorriaz interpretatuko dira.

Iruzurraren aurkako Neurrien Plana profesional guztiei jakinaraziko zaie eta hauen eskura egongo da, baita AUSAn behar bezala ezarritako iruzurraren aurkako sistemari buruzko beste dokumentu batzuk ere. Profesional guztiei jakinaraziko zaie, beren arteko harremanaren izaerak hala eskatzen duenean; profesional horiek plana betetzeko konpromisoa hartu beharko dute.

Horrez gain, Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honen edukia deskribatutako subjektuei lotutako pertsoneri ere aplikatzen zaie, eta, bereziki, adibide gisa, familia-lotura hau dutenei: bigarren mailara arteko ahaidetasuna, odol-ahaidetasunagatik edo ezkontza-ahaidetasunagatik (aurrekoak, ondorengoak, anai-arrebak edo ezkontideak edo horiekin antzeko lotura duen pertsona, horietako edozein).

Era berean, AUSAk konpromisoa hartzen du Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honetan araututako jarraibide eta printzipioek merkatuko beste eragile batzuekin dituen merkataritza- edo lan-harreman guztiak arautzeko, hala nola hornitzaileekin, laguntzaileekin, kontratistekin edo hark kontrolik ez duen enpresa partaidetuekin.

3 HITZEN GLOSARIOA

Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren irismena behar bezala interpretatzen eta ulertzen dela ziurtatzeko, dokumentu honetan gehien erabiltzen diren terminoen glosario labur bat erantsi da:

- **“Iruzurra”**: Deklarazio edo dokumentu faltsuak, okerrak edo osatugabeak erabiltzearekin edo aurkeztearekin zerikusia duen edozein egintza edo ez-egite; informazio bat komunikatzeko berariazko betebeharra ez betetzea; eta/edo funtsak desbideratzea aurreikusi ziren helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako.
- **“Partikularren arteko ustelkeria”**: Partikular batek, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, merkataritza-enpresa edo sozietate bateko zuzendari, administratzaile, enplegatu edo laguntzaileei edozein motatako onura edo abantaila agindu, eskaini edo ematea, justifikatu gabe, beraiantzat edo hirugarrenentzat, salgaiak erosi edo saltzean, zerbitzuak kontratatzean edo merkataritza-harremanetan berari edo hirugarren bati bidegabe mesede egiteko kontraprestazio gisa.
- **“Ustelkeria nazioarteko merkataritza-transakzioetan”**: Bidegabeko, diruzko edo bestelako edozein onura eskaintzea, hitzmatea edo ematea, agintari edo funtzionario publiko bati, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, usteltzen saiatzeko, horien edo hirugarren baten

mesedetan, edo horren inguruan haren eskaerei erantzuteko, helburu honekin: funtzio publikoak betetzeari dagokionez jardun dezaten edo ez dezaten, kontratu, negozio edo nazioarteko jarduera ekonomikoak egitean lehiarako beste edozein abantaila lortzeko edo mantentzeko.

- **“Eroskeria”**: Agintari bati, funtzionario publiko bati edo funtzio publikoa betetzen parte hartzen duen pertsona bati beste edozein motatako hobaria edo ordainsaria eskaintzea edo ematea, bere karguari dagozkion edo bere karguari lotutako eginbeharren aurkako egintza bat egin dezan, edo egin beharko lukeena egin ez dezan edo atzeratu dezan.
- **“Interes-gatazka”**: Interes-gatazka da, egitez edo ez-egitez, interes orokorrari zerbitzua emateko betebeharrarekin lotuta, interes orokor hori bere interes partikularraren edo besteren interesaren mende jartzen duen eragile bat egotea, diruzko edo gauzazko irabazi-asmoaren bidez, baita bere ekintzarekin edo ez-egitearekin bere helburua lortzen ez badu ere.
- **“Bandera Gorria”** Alarma-seinalea / iruzur-arriskua egon daitekeela adierazten duen adierazlea.

4 KODE ETIKOA

AUSaren Kode Etikoa abiapuntutzat hartzen da legezkotasuna, osotasuna eta gardentasuna betetzeko konpromisoa adierazteko, bere jardueraren garapenean proiektatuta.

Horretarako, erantzukizun-printzipioa aplikatu behar da ekintza instituzional zein indibidualetan; izan ere, ekintza horiek Kode Etikoan jasotako jarraibideekin bat etorri behar dute, lan-zereginak betetzeko jarrera arduratsua izan behar dute, eta jokabide eraginkorra izan behar dute jarduera irregularrak eta/edo etikoki zalantzarriak berehala identifikatu, komunikatu eta ebazteko.

Kode Etikoan jasotako araudia betetzen ez bada, dagozkion zehapenak aplikatu ahal izango dira.

Bertan aurreikusitakoaren arabera, indarrean dagoen legeria benetan betetzen dela eta iruzurraren aurka borrokatzen dela bermatzeko, Kode Etikoak AUSAko profesionalak bete beharreko honako jokabide-arau hauek ezartzen ditu:

- Ustelkeriaren, eroskeriaren eta iruzurraren aurkako borroka.
- Interes-gatazkak.
- Gardentasuna eta leialtasuna agintari fiskalekiko harremanetan eta funts publikoen erabilera zuzena.
- Interes-taldeekin erlazioa.
- Finantza-informazioaren barne-kontrola.
- Informazio erreserbatua, konfidentziala eta pribilegiatua behar bezala tratatzea.
- Erabateko jokabide profesionala izatea.
- Berrikuntza sustatzea eta informazioa babestea.

- Osasun publikoa eta ingurumena errespetatzea.

Kode Etikoa behar bezala betetzen dela zaindu beharko du Betetze Batzordeak, aipatutako dokumentuan aurreikusitakoaren arabera.

5 IRUZURRAREN AURKA JARDUTEKO NEURRIAK

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau Europako funtsen kudeaketan iruzurrari aurre egiteko AUSAren strategiaren barruan sartzen da; laguntza horiek egikaritzen dituzten administrazio publikoek nahitaez bete beharreko baldintza da hori. Hala dago jasota Espainiako Gobernuaren SEEPen, Europako Batzordeak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Mekanismoa garatzeko emandako jarraibideak betez.

Horregatik, AUSAk iruzur-arriskuak aztertzeko prozedura jakin batzuk ezarri ditu. Era berean, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkaren alderdi nagusiei lotutako prebentzio-mekanismoak proposatu ditu, baita AUSAk antzemandako arriskuak minimizatzen bideratutako jarraipen- eta kontrol-tresnak ere, iruzurra eta iruzurrezko irregulartasunak prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta jazartzeko.

Horretarako, iruzurraren aurka borrokatzeko planean, AUSAk erreferentzia gisa hartu du Europako Kontuen Auzitegiaren Iruzur Arriskua Kudeatzeko Prozesua edo Zikloa, Treadway Batzordearen Erakunde Babesleen Batzordearen (COSO) esparruan oinarrituta. Hona hemen horren irudia:



5.1 Prebentzioa

Prebentzioa oinarritzko tresna da iruzurraren aurka borrokatzeko. Hori dela eta, hobe da iruzurrezko jarduerak prebenitzea, gertaera gertatu ondoren kudeatzea baino. Prebentzio-jarduerak iruzurrezko jokabideak egiteko aukerak murriztean oinarritzen dira, barne-kontrolerako sistema sendo bat ezarriz, iruzur-arriskuaren ebaluazio proaktibo, egituratu eta espezifiko batean oinarrituta. Kontrolak egiteko, horietaz arduratzen diren langileek kontuan izan behar dituzte, oro har, Europako Batzordeak iruzurraren adierazleei edo bandera gorriei buruz emandako jarraibideak.

Hala ere, kontrol-ingurune sendo bat ezinbesteko baldintza da, baina ez nahikoa, iruzur-arriskuaren aurkako babes egokia lortzeko.

Iruzurraren prebentzioan eraginkortasun handiagoa lortzeko, existitzen diren kontrol-sistemak honako neurri hauekin konbinatzen ditu AUSAk:

a. Konpromiso instituzionala

AUSAren webgunean argitaratuko den iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala. Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau onartzeak aipatutako Adierazpena sinatzea dakar (**1. eranskina**).

b. Arriskuaren ebaluazioa: probabilitatea eta eragina

Iruzur-arriskuaren ebaluazioaren helburu nagusia iruzurrezko portaerak eragin ditzaketen AUSAren jarduketak identifikatzea da, baita jokabide horiek prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko haren gaitasuna ere.

AUSAk iruzur-arriskuaren ebaluazioa egin du, eta horrek balioko du iruzurra jasateko arriskuak identifikatzeko, monitorizatzeko eta hautemandako arrisku-mailaren arabera beharrezko eta proportziosko neurriak hartzeko.

Ebaluazio hori egiteko, beharrezkoa da AUSAn egindako jarduerak identifikatzea, horietan zehaztu baitaiteke iruzur-arriskua; jarduera horiek ebaluatu egingo dira gertatzeko probabilitatea eta arriskua jarduera bakoitzean zehaztearen inpaktua jakiteko.

Lehenengo fasean, **berezko arriskua** aztertuko da:

1. Arriskua gauzatzeko probabilitatea:

1. OSO HANDIA
2. HANDIA
3. ERTAINA
4. TXIKIA
5. OSO TXIKIA

2. AUSArentzako izango lukeen eragina (zehapenak, zigorrak edo kalte erreputazionala):

1. OSO HANDIA
2. HANDIA
3. ERTAINA
4. TXIKIA
5. OSO TXIKIA

Horrela, **berezko arriskua** da arriskuaren tratamendurako AUSAk har dezakeen edozein ekintzaren aurrean dagoen arriskua.

AUSAk iruzur-arriskua arintzeko kontrolak ezarri ondoren, dauden kontrolen eraginkortasuna ebaluatuko da: arrisku bakoitzerako dauden kontrolak identifikatzea eta baloratzea, arintze-maila zehazteko.

Horrela, **hondar-arriskuaren probabilitatea** lortzen dugu; hori kalkulatzeko, enpresak arrisku horrekiko duen **kalteberatasuna** hartzen da kontuan, edo, bestela esanda, arrisku hori arintzeko AUSAk ezarritako kontrolak aztertzen dira.

Hondar-arriskuen ebaluazioaren arabera, AUSAk Iruzuraren aurkako Ekintza Neurrien Plan bat egingo du, iruzurraren ondorioetarako arrisku garrantzitsuenak zuzentzeko, kontrolatzeko eta arintzeko.

Sistema hori aldizka, urtean behin edo bi urtean behin berrikusiko da, iruzur-arriskuaren arabera, eta, nolana ere, iruzur-kasuren bat detektatu bada edo prozeduretan edo langileen artean aldaketa esanguratsuak gertatu badira.

Gainera, kontrolen efizientzia ziurtatzeko, laguntzak kudeatzeaz arduratzen diren unitateek barne-kontrolako jarduketak egingo dituzte, hala nola gainbegiratzea, egiaztatzea eta jarraipena egitea. Jarduketa horiek neurrizko erantzun gisa gauzatzeko diseinatuko dira, eta arriskuen ebaluazioan identifikatu diren arriskuak eraginkortasunez arintzera bideratuko dira.

c. Interes-gatazkak

Interes-gatazkaren autoebaluaziorako, eta iruzurraren eta ustelkeriaren prebentziorako eredu bat, HFP AGINDUarekin bat datorrena, eta emaitzen txostenen aldizkako eguneratzeak, bi urtean behin edo urtean behin, hautemandako arriskuaren arabera (**2. eranskina**).

d. Estortzioak eta eroskeriak

Profesional guztientzako **prestakuntza-, sentsibilizazio- eta komunikazio-programa** bat, etikarekiko eta osotasunarekiko konpromisoa agerian uzten duena. Profesional guztiek iruzurrari buruzko gai teoriko eta praktikoen inguruko prestakuntza izan behar dute.

HFP AGINDUAN ezarrita dagoen bezala, prebentzio-neurri gisa jasotzen da maila hierarkiko guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintzak garatzea, hala nola bilerak, mintegiak, lantaldeak eta abar egitea, besteak beste, iruzurra detektatuz gero jarduteko barne-kontrol espezifikoak daudela jakitea sustatzeko. Helburu nagusia SEEPen aplikazioan iruzur-arriskua murriztera bideratutako prebentzio- eta detekzio-neurriak identifikatzea eta ebaluatzea du, eta, horrez gain, barne-kontrolako sistema egoki bat ziurtatzea, kudeaketa-arlo guztien barruan, eta iruzurrezko jarduera oro ahulduko duen kultura bat sustatzea.

Horregatik, AUSAk zenbait prestakuntza-ekintza landuko ditu, ikuspegi teoriko eta praktiko batetik. Ustelkeriaren, eroskeriaren eta interes-gatazken prebentzioan adituak diren profesionalak — barrukoek zein kanpokoek— azalduko dituzte ekintza horiek. Profesional horiek erreferentziatzat hartuko dituzte autonomia-erkidegoan, estatuan eta European indarrean dagoen araudia, baita hartutako barne-politikak eta -prozedurak ere.

Prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintza horiek beste ekimen batzuekin osatuko dira, hala nola erabaki-organo gorenaren mezu ofizialak zabaltzea, sentsibilizazio-kanpainak abiaraztea, SEEP gune espezifiko bat sortzea, posta elektronikoko bidezko komunikazioak, etab.

Prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintzak eraginkorrak izan daitezzen, besteak beste, barne-auditoretzak egingo dira, eta parte hartzen dutenek beren lanbide-jarduera garatzean eskuratutako jakintzak neurtzeko eta aplikatzeko sistemak garatuko dira. Parte-hartzaileek eraginkortasun hori

egiaztatzeko eta bermatzeko behar diren ebidentziak aurkeztu beharko dituzte.

Bestalde, AUSA harremanetan jarri ahal izango da iruzurraren aurkako borrokan espezializatutako erakundeekin, hala nola Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin (SNCA). Horri esker, barne-kontrolerako sistema eguneratua mantendu ahal izango da, iruzur-kasuak prebenitzeko eta, hala badagokio, detektatzeko aukera gehiago izango dituena.

5.2 Detekzioa

Nahiz eta prebentzio-teknikak iruzurraren aurkako borrokan mekanismo fidagarrienetako bat izan, garrantzitsua da iruzurrezko edozein susmo edo gertaera goiz identifikatzea ahalbidetuko duen detekzio-sistema bat izatea.

Horretarako, AUSAk iruzurra detektatzeko hainbat sistema eta teknika ditu, besteak beste:

a. Interes-gatazken prebentzioa

AUSAk ez du onartzen interes-gatazkarik egotea funtsen kudeaketan inplikaturik egon daitezkeen agenteen artean, hala nola kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten profesionalen artean, ezta funtzioaren bat eskuordetu zaienen artean ere.

Horiek kontrolatzeko, funtsezkoa da profesionalak jakitea zer ulertu behar den interes-gatazkatzat. Ildo horretan, erakundeko langileei jakinarazpenak egingo zaizkie interes-gatazka motei buruz eta hori saihesteko moduei buruz.

Interes-gatazka dago, baldin eta erabakiak hartzerakoan bat egiten badute interes orokorrak edo interes publikoak eta interes pribatu propioak edo hirugarren pertsonekin edo kontratazio-organoa osatzen duen pertsonaren baten edo organo kontratatzaileko langileen zuzeneko ahaideekin partekatutakoak.

Interes-gatazken adibideak:

- Egoera horiek gutxiestera bultzatzea eta interes publikoa lortzeari kalte egiten dioten jokabideak ahalbidetzea.
- Kontratista edo saltzaile jakin baten faboritismo esplikaezina edo ezohikoa.
- Prezio altuak eta kalitate txikiko lana etengabe onartzea, etab.
- Kontratazio-arduradunak ez du interes-gatazka deklaraziorik aurkeztu edo osatu gabe aurkeztu du.
- Kontratazio-arduradunak uko egin dio erosketekin zerikusirik ez duen postu batera igotzeari.
- Badirudi kontratazio-arduradunak negozio propioak egiten dituela bere aldetik.
- Kontratazio-arduradun baten eta zerbitzuen edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa.
- Kontratazio-arduradunaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera esplikaezina edo bat-

batekoa.

- Interes-gatazkak ez aintzat hartzea asistentzia-organoetako (adituen mahaia/batzordea/proiektuen lehiaketa) kideak izendatzean.

Era berean, aztertzen ari garen eta AUSAk gauzatzen dituen Europako funtsekin finantzaturako jarduketak dituzten erakunde laguntzaile, kontratista eta azpikontratistetan interes-gatazkak egon daitezkeela kontrolatu beharko da.

Kontrol hori honako hauen bidez egingo da:

- Prozeduretan parte hartzen dutenek interes-gatazkarik ez dutela azaltzen duen adierazpena betetzea (Interes Gatazkaren Absentzia Deklarazioa – Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honen 3. eranskinean jasota dago edo, kasua balitz, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan jasotzen den eredua). Nolanahi ere, kontratazio-organoaren edo dirulaguntza emateko organoaren arduradunak, lizitazio-dokumentuak eta oinarriak edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskabideak, eskaintzak eta proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, ebaluazio-batzordeetako kideek eta prozedurako kide anitzeko gainerako organoek bete beharko dute. Kide anitzeko organoen kasuan, adierazpen hori bileran parte hartzen duten pertsona guztiek egin dezakete, eta aktan jaso.
- Onuradunek aurkeztu beharreko baldintza gisa, hala dagokionean, Interes Gatazkaren Absentzia Deklarazioa bete beharko dute.
- Betetze Batzordearen ardura izango da Interes Gatazkaren Absentzia Deklarazioa gainbegiratzea eta erregistroak eguneratuta edukitzeko ardura.
- Denboran zehar Interes Gatazkaren Absentzia Deklarazioen jarraipena eta eguneratzea, batez ere interes-gatazka potentzialtzat jotakoei dagokienez.
- Barruan edo Salaketen Kanalaren bidez jakinarazitako interes-gatazken azterketa.
- Merkataritza-erregistroen datu-baseen, erakunde nazionalen eta Europar Batasunakoen datu-baseen, enplegatuen espedienteen edo datuen prospekzio-tresnen («data mining») edo arriskuen puntuazioaren bidez informazioa egiaztatzea, betiere datu pertsonalak babesteko arauak errespetatuz.

Baldin eta interes-gatazka bat dagoela antzematen bada, ezarritako edozein bidetatik, Betetze Batzordeak azterketa bat egingo du, eta, bertan, Interes Gatazkaren Absentzia Deklarazioak eta gatazkan nahastuta egon daitezkeenek aurkeztutako dokumentazioa berrikusiko ditu, horri buruzko erabaki bat hartzeko.

Azterketa, ebazpena (prozeduratik kanpo uztea, eginkizunen banaketa aldatzea, besteak beste) eta jarraipena interes-gatazken erregistro batean dokumentatu beharko dira, Betetze Batzordearen kontrolpean eta segurtasun-neurri egokiekin, hala dagokionean berrikusi eta eguneratu ahal izateko.

b. Salaketen kanala

Iruzzurraren aurkako Neurrien Planaren helburua betetzeko, garrantzitsua da profesional guztiak jakitea Iruzzurraren aurkako Neurrien Plan honen —baita AUSAn behar bezala ezarritako Iruzzurraren aurkako Sistemari buruzko beste edozein dokumentu ere— ez-betetze edo eraginkortasunik ezaren berri emateko Salaketa Kanala eskuragarri dagoela.

Funtsezkoa da langile guztiak ezagutzea eta haiek iruzurrezko jokabidearen inguruan dituzten susmoak jakinarazi ahal izatea, erantzuna jasoko dutela jakinda, betiere fede onez jokatuta, hau da, jakinarazitako informazioa arrazoiz egiazkoa dela, eta salaketarekin interes publikoak eta guztion ongia babesteko jarduten duela ulertuta. Jakinarazpenak konfidentziasunez tratatzen direla bermatuko du beti, eta ez du inolako errepresaliarik onartuko bere susmoak jakinarazten dituen pertsonalaren aurka, ezta harekin zerikusia duten pertsonekin ere. Halakotzat hartuko dira lankideak, senideak edo pertsona juridikoak, baldin eta hauekin lan egiten badute edo lan-testuinguru batean beste edozein harreman mota badute edo partaidetza esanguratsua badute.

Horregatik guztiagatik, AUSAk **Salaketa Kanal** bat du profesionalen eskura, Informazioko Barne Sistemari integratua, Sistemaren Arduradun Delegatuak artatua eta kudeatua. Horrek Iruzzurraren aurkako Sistemari buruzko jakinarazpenak eta otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitako beste gai batzuk jaso eta artatzeko bide gisa jarduten du. Lege horrek arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa erregulatzen du.

Kanal hori gaituta dago, besteak beste, iruzurraren susmoak eta kontrolak aplikatu behar dituztenek antzemandako kontrol-akatsak jakinarazteko.

Informazioko Barne Sistemak (Salaketen Kanalak) informazioaren konfidentziasuna eta segurtasuna bermatzen ditu.

Aurkeztutako salaketak, gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Salatuaren nortasuna, haren izen-abizenak eta, ezaguna izanez gero, AUSAn duen kargua adierazita.
- Salaketa eragin duen gertakaria: zein den salatutako jokabidea, zer datatan gertatu zen gutxi gorabehera, zer egunetan detektatu zen eta nola jakin den.
- Hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak edo frogabideak.

Halaber, salatzaileak hala nahi badu, honako alderdi hauetako edozein jaso ahal izango du: salatzailearen izena, harekin harremanetan jartzeko modua (helbidea, posta elektronikoa edo toki segurua jakinarazpenak jasotzeko), baita garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein alderdi ere.

Nolanahi ere, salaketak ahalik eta deskriptiboena izan beharko du, salatua eta/edo salatutako jokabidea errazago identifikatzeko.

Informazioko Barne Sistemaren funtzionamendua, eskubideen araubidea, betebeharrak, bermeak eta gainerako gaiak behar bezala jasota daude AUSAk behar bezala onartutako sistema horren funtzionamendu-arauetan.

c. **Bandera gorriak**

Bandera gorriek iruzur-adierazle gisa funtzionatzen dute, seinale espezifikagoak dira, edo iruzurrezko jarduera bat gertatzen ari dela adierazten duten «alerta-adierazle» dira. Une horretan berehalako erreakzioa behar da ekintzaren bat burutzea beharrezkoa den egiaztatzeko.

Illo horretan, AUSAk, oro har, bandera gorri batzuk identifikatu ditu, eta Profesionalek bandera horien aurrean erreakzionatu behar dute, Betetze Batzordeari jakinaraziz iruzurrezko jokabidea izan daitekeen irregulartasun bat identifikatu dutela.

Bandera gorriak alarma-seinaleak, pistak edo balizko iruzurraren zantzuak dira. Bandera gorria izateak ez du esan nahi, nahitaez, iruzurra egon denik, baina jarduera-eremu jakin batek aparteko arreta behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

Jarraian, eta oro har, gehien erabiltzen direnak zerrendatzen dira, Gidaren zerrenda zabalean sartutako iruzurrezkoak izan daitezkeen praktiken tipologiaren arabera sailkatuta (COCOF 09/0003/00 of 18.2.2009 – Information Note on Fraud Indicators for ERDF, ESF and CF). Horien artean, AUSAk bere arrisku espezifikoetara ondoen egokitzen direnak hautatu ditu.

Ustelkeria: eroskeriak eta legez kanpoko komisiok

- Gizarte-harreman estua dago kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean.
- Kontratatzailearen ondarea handitu egiten da arrazoirik gabe edo bat-batean.
- Kontratatzaileak ezkutuko kanpo-negozio bat du.
- Kontratatzaileak legez kanpoko komisiok ordaintzeko ospea du sektorean.
- Kontratuen balioa handitzen duten aldaketak gertatzen dira, agiririk gabe edo sarritan.
- Kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin loturik ez dagoen lanpostu hoberen batera igotzeari.
- Kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

Interes-gatazka

- Langile jakin baten aldeko faboritismo esplikaezina edo ezohikoa.
- Kontratazio-arduradunak ez du interes-gatazkaren deklaraziorik aurkeztu edo osatu gabe aurkeztu du.
- Kontratazio-arduradunak uko egin dio erosketekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Badirudi kontratazio-arduradunak negozio propioak egiten dituela.
